


Euskal AEko genero-berdintasunaren indizea 1,4 puntu hobetu da eta 74,5 puntutan kokatu da 2021ean

Berdintasun-maila handienak osasunarekin, diruarekin eta denborarekin lotutako alderdietan daude, eta txikienak ezagutzan eta boterean

Euskal AEk 100etik 74,5 puntu lortu ditu 2021eko *Genero-Berdintasunaren Indizean*, Institutuaren (EIGE) metodologia aplikatuta, eta 2019arekiko 1,4 puntu hobetu ditu, Genero Berdintasunerako Europako Eustatek landutako datuen arabera.

Balio horrekin, Luxenburgoren eta Finlandiaren artean kokatzen da Europako sailkapenean, herrialde horiek, hurrenez hurren, zazpigarren eta zortzigarren postuan baitaude.

Genero berdintasunaren indizea, herrialdeen arabera. 2021




Genero-Berdintasunaren Indizea (GBI) adierazle sintetiko bat da, eta sei arlo edo dimentsiotan (*Enplegua*, *Dirua*, *Ezagutza*, *Denbora*, *Boterea* eta *Osasuna*) genero-berdintasunaren alorrean egindako aurrerapen sozialak laburbiltzen ditu. Eraitza erabateko berdintasuna 100 balioarekin bat datorren eskala batean azaltzen da.

Euskal AEk 27-EBko batez bestekoa gainditu du dimentsio guztietan

EB-27ko batez bestekoarekin alderatuta, Euskal AEk puntuazio altuagoa lortu du genero-berdintasuna neurtzen den dimentsio guztietan. Abantailarik handiena *Denbora* dimentsioan gertatzen da, Euskadi Europar Batasuneko herrialde guztien gainetik baitago nabarmen. Baita *Osasuna* dimentsioan ere, non laugarren postuaren parean jartzen den, bereziki *Osasun Egoera* azpidimentsioan; izan ere, lehen postuan kokatzen da. Espainiari dagokionez, aldiz, azpitik dago, eta Espainiako Indizea 76,4koa da.

Euskal Autonomia Erkidegoan, genero-berdintasun osora gehien hurbiltzen den dimentsioa *Osasuna* da (100etik 92,4 punturekin). Beste muturrean, *Boterea* dimentsioa dago, non berdintasun-neurria 63,1 puntukoa den. Azken dimentsio horren barruan, berdintasuna handiagoa da *Botere politikoari* dagokionez, berdintasun-neurria 90,2 puntukoa baita, baina askoz txikiagoa *Botere ekonomikoari* (52,2 puntu) eta *Botere sozialari* (53,3 puntu) dagokienez.

Genero berdintasunaren indizearen adierazleak, dimentsioen arabera. Euskal AE eta EB-27. 2021



Oinarria: Eustat. Genero berdintasunaren indizea eta EIGE

2010 eta 2021 artean GETaren dimentsio guztiek aurrera egin zuten

2010 eta 2021 urteen artean, Euskadi 68,9 puntutik 74,5 puntura igaro da. Indizearen dimentsio guztietan ikusten da genero-berdintasunaren aurrerapena, baita azpidimentsioetan ere, *Egoera ekonomikoari* buruzkoan izan ezik. Dimentsio guztien artean, aldi honetan bilakaera onena izan duena, nahiz eta oraindik erabateko berdintasunetik urrunen egon, *Botereari* dagokiona izan da. Bertan, berdintasun-neurria 8,8 puntu igo da, *Botere ekonomikoan* — 13,6 puntuko igoera lortu da — eta *Botere politikoan* — 8,5 puntuko bilakaera positiboa izan du — izandako hobekuntzak bultzatuta.

Genero-berdintasunaren indizea, dimentsioen eta azpidimentsioen arabera. Euskal AE eta lurralde historikoak. 2010-2021

	EUSKAL AE					Araba/Alava			Bizkaia			Gipuzkoa		
	2010	2015	2017	2019	2021	2017	2019	2021	2017	2019	2021	2017	2019	2021
Genero berdintasunaren indizea	68.9	69.3	71.1	73.1	74.5	71.0	72.2	74.1	69.5	71.9	73.9	72.5	73.5	74.5
Enplegua	70.6	72.3	72.6	74.7	75.6	72.6	75.2	76.3	71.7	73.8	74.8	74.2	75.4	76.0
parte-hartze	76.7	80.9	82.2	83.1	83.3	83.5	84.3	83.8	81.2	82.4	82.5	83.4	83.8	83.9
Banantzeari eta lanaren kalitatea	65.0	64.7	64.2	67.1	68.7	63.1	67.1	69.4	63.2	66.0	67.8	65.9	67.8	68.7
Dirua	83.1	84.5	83.7	85.4	85.6	83.5	84.9	86.7	82.3	84.5	86.3	86.9	86.4	86.5
Finantza-baliabideak	73.6	76.1	76.5	80.7	79.8	74.7	80.5	79.6	76.3	80.3	79.2	77.8	81.5	80.9
Egoera ekonomikoa	93.8	93.9	91.5	90.3	91.8	93.4	89.5	94.4	88.8	88.9	94.1	97.2	91.7	92.5
Eragutza	61.2	63.9	65.2	65.6	67.7	64.0	63.9	67.4	64.8	66.6	68.7	65.5	64.8	66.1
Lorpena eta parte-hartzea	70.6	70.8	73.1	74.8	78.7	70.9	70.9	77.7	72.3	75.8	80.4	73.3	74.5	76.2
Banantzea	53.0	57.7	58.2	57.6	58.2	57.8	57.6	58.5	58.1	58.4	58.7	58.6	56.4	57.3
Denbora	73.4	70.7	72.4	74.1	78.3	71.9	71.5	75.5	71.4	72.6	76.2	73.3	75.1	77.9
Zaintzei lotutako jarduerak	88.7	89.3	88.4	93.7	93.0	87.8	94.6	93.1	88.5	93.0	93.1	88.3	94.3	92.5
Gizarte jarduerak	60.8	56.0	59.3	58.5	65.9	59.0	54.1	61.2	57.6	56.8	62.4	60.7	59.9	65.5
Boterea	54.3	52.9	58.0	62.7	63.1	58.6	61.5	61.9	53.8	58.6	60.7	60.3	63.3	64.2
Botere politikoa	81.7	80.4	87.7	96.7	90.2	87.7	93.5	90.3	72.9	83.6	85.2	91.7	92.1	91.4
Botere ekonomikoa	38.6	36.3	41.3	45.1	52.2	39.2	40.8	49.4	41.4	44.4	51.5	41.9	46.3	50.0
Botere soziala	50.7	50.7	53.9	56.5	53.3	58.4	61.1	53.0	51.5	54.1	50.9	57.0	59.6	57.8
Osasuna	91.3	90.9	92.4	92.4	92.4	93.7	93.4	93.5	92.5	92.5	92.4	91.7	91.9	91.9
Osasun-egoera	97.0	96.2	97.3	97.2	97.2	98.0	96.9	97.2	96.8	96.6	96.5	97.7	98.3	98.2
Jokabide osasungarriak	80.6	80.6	81.3	81.3	81.3	84.3	84.3	84.3	82.1	82.1	82.1	79.0	79.0	79.0
Osasunaren eskuragarritasuna	97.4	96.8	99.8	99.8	99.8	99.7	99.7	99.7	99.7	99.7	99.7	99.9	99.9	99.9

Puntuazioak 1etik (erabateko desberdintasuna) 100era (erabateko berdintasuna) doaz

Data 2024ko Maiatzaren 22a

Oinarria: Eustat. Genero berdintasunaren indizea

2017tik 2021era bitartean, Euskal AEko lurralde historikoek beren erregistroak hobetu dituzte *Genero-berdintasunaren indizean*. Gipuzkoako berdintasun-indizea Arabakoa baino 0,3 handiagoa da, eta Bizkaikoa baino 0,6. Bestalde, Bizkaian hobetu da gehien indizea 2017-2021 aldian, eta Gipuzkoan gutxien; horrela, lurraldeen arteko alde urriak desagertzen ari dira.

[Genero-berdintasunaren indizea. Egiturazko adierazleak](#)

Informazio metodologikoa:

[Oinarrizko metodologia](#)
[Adierazleen zerrenda](#)

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62